


# noaua



## SAIZAR SAGAROTEGIA ETA USURBIL FT OMENDUKO DITUZTE IGANDEAN, SAGARDO EGUNEAN

"Usurbil FTko kide guztiak gonbidatuta gaude, igande goizeko hasiera ekitaldira", adierazi diguten moduan / 06-07 or.

ARGAZKIA: NOAUA



NOAUA

**Kattalin Arzallus  
Mitxelena omendu  
zuten San Ixidro  
egunean** / 08



NOAUA

**Zumarte Musika  
Eskolan  
matrikulatzeko epea  
irekitzear da** / 14



PAGAZPE

**Pagazpe: "Itzulerako  
partidetan zaleen  
beharra izango  
dugu"** / 19



**SAGARDO EGUNEKO  
GEHIGARRI BEREZIA**

**'Etika eta giza  
eskubideak pertsonen  
zaintzan' zikloa  
hastera doa** / 22



# Turkia

IRTEERA 2026ko iraila

**NOAOA**  
BIDAIAK

Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 · info@noaa.eus · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria



120m<sup>2</sup>

Arraindegia salgai, Usurbilen,  
Deitu 650 31 31 91



*Ane*

ILEAPAINDEGIA

*Artzabal*

JUBILATUENTZAKO  
AUKERARIK  
HOBERENA

ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96

## Erraustegia geratzeko mobilizazioa larunbatean

"Herritarrei dei egin diegu berriro ere gure protesta oihukatzerara", hilaren 19an Donostiako udaletxe atarian eginiko agerraldian Errausketaren Aurkako Mugimenduak adierazi zuenez. Maiatzaren 23an, 13:00ean Foru Aldundiaren egoitza atarian, Donostiako Gipuzkoa plazan mobilizatzerara deitu zuten, hiriburuko eta Gipuzkoako agintariei erraustegia behingoz gelditu dezatela

galdegiteko. Deitzaileen esanetan, "Donostia da Gipuzkoako herrien artean gutxien birziklatzen duena, gero eta diferentzia handiagoz gainera. Eta, horrela, Donostia da Zubietako erraustegi kutsatzaile gehien elikatzen duena". Bitartean, "mundu osoko adituak" erraustegiak hedatutako toxikotasuna pilatzen doala ohartarazten dihardutela gogorarazi zuten.



Deitzaileek aste hasieran Donostian eginiko agerraldia.

### Garbigune mugikorra, Kalezarren

Hilaren 21ean garbigune mugikorra Santuenetik Kalezarretera lekuz aldatuko dute, eta hilaren 28an Kalezarretik herri erdigunera.

Bestalde, bi igandean behin egin ohi duen moduan, maiatzaren 24an igandea bilduko du errefusa Usurbilgo Udalak.

### Autorik gabeko Sagardo Eguna

Jai giroa nagusituko da igande honetan, herri erdigunean. Festa eremuaren bueltako kaleak ibilgailuen joan-etorrietarako itxiko dira urtero moduan. Horrez gain, kontuan izan, Lurraldebuseko zerbitzuak ere ez dira herri erdigunetik igaroko, San Inazioko biribilgunea izango dute geltoki.

### 1960ko bazkarian izena emateko epea itxear da

1960. urtean jaio zirenetako batzuk bazkari bat antolatu dute. Larunbat honetan elkartuko dira, eguerdi partean, Atxega jauregian. Izen-ematea maiatzaren 10era artekoa zen berez, bi telefono zenbaki hauen bidez:

- Mila: 670 906 417.
- Marije: 676 855 612.

### Santuenea erdigunea eraberritzeko proposamena

Santueneko erdigunea eta Gure Elkarte taberna eraberritzeko aurreproiektuak aurkezteko ekitaldia deitu du Usurbilgo Udalak.

Asteazken honetan, maiatzaren 20an, arratsaldeko 18:30ean auzoko frontoian egingo da aurkezpen ekitaldi irekia.



**Argitaratzailea:**  
Noaua Kultur Elkarte  
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea  
20.170 Usurbil  
943 360 321  
elkartea@noaua.eus

**Elkarteko lehendakaria:**  
Ugaitz Agirre.  
**Aldizkariko koordinatzailea:**  
Imanol Ubeda.  
**Kudeatzailea:**  
Alaitz Aizpurua.

**Erredakzio Batzardea:**  
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.  
**Diseinua:** Goienna.  
**Publizitate arduraduna:**  
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321  
publizitatea@noaua.eus  
**Banatzalea:**  
Iban Maritxalar.  
**Lege Gordailua:** SS-668-96.  
**ISSN:** 1136-6818.

**Tirada:** 3.050 ale.  
**Inprimategia:**  
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.  
**Harremanetarako:**  
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO



KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA


## IRITZIA



LUIS ARANALDE

## Harropuzkeria xumetasunaren kontra

**D**uela gutxi, lagun batek honela galdetzen zidan: "Ez al duk ezer idatzi behar Trumpen eta Aita Santuaren arteko eztabaidari buruz?". Gomen dio interesgarria iruditu zitzaidan eta hementxe doakizue, bada, nire gogoetatxo. Donald Trumpek sekulako mesedea egin dio Leon XIV.ari, jakina, nahi gabe. Hori gertatzen zaie askotan beren buruaz harro sentitzen direnei. Gure Aita Santuamesprextatuz, batzuetan hitz gordinekin gainera, mundu zabaleko eszena tokian erdierdian jarri du eta pobreen, bakearen eta giza duintasunaren defendatzaile sutsuena bihurtu du. Gure Aita Santua bide bazterretan dauden pobreen eta bakearen eta justiziaren gose-egarri direnen abokatu paregabe gisa agertzen da orain. Bultzada hori, hain zuzen, bere antitesia den ahozabal, zarataren eta neurrigabekeriaren bultzatzaile nagusia den Trumpen lana izan da. Francis Prevosten irudia hazi egin du munduaren aurrean, botereak zanpatu nahi izan duen gizon apal eta xumea. Ez du lortu, alderantziz. Kristauen gidari nagusiak ez zuen inoiz izan horrenbesteko itzalik bere jarraitzaileen eta mundu osoaren aurrean. Gizon ahul bati eraso egiten ziola uste zuen Trumpek, baina bakearen eta errukiaren aldetik hitz egiten duengure Aita Santuaren irudia sendotu besterik ez du egin. Esaera zaharrak dioena: "sari bila joan eta neke berriak



"Donald Trumpek sekulako mesedea egin dio Leon XIV.ari, nahi gabe".

aurkitu", gertatu zaio amerikar harroputzari. Historian zehar askotan gertatu ohi dena: maitasunaren indar isilaren aurrean matoiek amore eman behar izan dute. Ongiak, txikia badirudi ere, gaizkia ahalguztiduna gainditzen du.

Azken egun hauetan, adimen artifizialarekin sortutako irudi bat zabaldu dute. Bertan, Donald Trumpek bere burua irudikatzen du estetika mesianiko batekin: gaixo bat sendatuz agertzen da eta noski, ez da soilik ikusmen eszentrikoa bakarrik, "ume politikaren sintoma kezagarria baizik", kazetari baten esanetan. Teknologia ez du nartzismoa sortzen, baina bai puztu eta anplifikatu; eta kezagarriena, agian, legitimatu agintari zoro gaizto horren gehiegikeriak.

Robert Prevot Aita Santuak irmotasunez erantzun du beti, baina inoiz probokazioaren jokoan sartu gabe. Behin baino gehiagotan gogoratu digu edozein kristauk begi bistan eduki behar lukeena: bakea ez dela ahultasuna, agindua baizik. "Zorionekoak bakearen alde lan egiten dutenak", dio

ebanjelioak. Trumpen administrazioari ez diola beldurrik esan zuen lehengo batean eta gerraren aurka eta ebanjelioaren alde mintzatuko dela beti. Gerretan milaka milioi gastatzen dituzten "tiranoak" kritikatu ditu. Hauek berriz, "gerra santua eta gurutzada" egiten ari direla esan dute, barregarri gelditzeko inongo lotsarik gabe. Aita Santuak, berriz, inoiz baino garbiago erantzun die: "Jesusek ez ditu gerra egiten dutenen otoitzak entzuten, euren eskuak odolez beteta daude eta". Eta amaitu du: "Tirano gutxi batzuk mundua suntsitzen ari dira".

Gai erlijiosoetan aditua den Jose Manuel Vidalek honela dio: "Leon XIV.ak ongi ulertu du aitasantutzak ez duela erakusketa handien beharrik emankorra izateko". Apaiz lagun baten hitzekin amaitzen dut: "Aita Santu anaia, zu zara gaur, mundu osoarentzat, bakearen sinbolo eta estandarte nagusia. Trump, aldiz, gerraren, indarkeriaren eta milioika pertsonaren sufri-menduaren eragile lotsagarria. Leon XIV.a, jarrai horrelaxe mundua zerbitzatzen".

**"MAITASUNAREN  
INDAR ISILAREN  
AURREAN, MATOIEK  
AMORE EMAN  
BEHARRA IZAN  
DUTE"**

## Kantu-jirarik ez maiatzean

Hilero, azken larunbatetan Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak antolatutako ohi duen kantu-jirarik ez da izango maiatzean, ezta ekaina amaieran ere.

### Hurrena, ekainaren 13an

Uda aurretik, ordea, hitzordu berezi bat iragarri dute; ekainaren 13an irtengo dira plazara. Ohi bezala, 12:00etan, Mikel Laboa plazan finkatu dute biltzeko hitzordua. Oraingo hau, ordea, Amaia Zubiriari eskainitako saioa izango dela aurreratu dute. Bere kantu ezagunekin plazaratuko dira.

## "Goazen kalera" Aginagan

Herri zaintzaileagoa izateko bidearen baitan, Udalak eragile gehiagorekin antolaturiko astearteroko hurrengo ibilaldi osasuntsua Aginagan egingo da hilaren 26an. Ohi bezala, 10:30etan emango zaio hasiera bertako frontoitik eta joan-etorrirako taxi zerbitzua eskainiko da herri erdigunetik, goizeko 10:15ean Laurok liburu-denda parean.

## 1956koak, Larrun aldera egunpasa

Maiatzaren 26an, goizeko 8:00etan abiatuko da autobusa. Larrun eta inguruak bisitatuko dituzte. Izena emateko epea astelehen honetan amaitzen zen.

- 687 706 363.
- 677 342 793.

Okindegia-Gozotegia  
**LABE-GOXO**

**txirriStra**  
TABERNA  
• PLATER KOMBINATUAK  
• BOKATAK • PINTXOAK  
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

**Patxi**  
PARRIKAZI  
JATEXEA  
• bazkariak EGUNERO  
• afariak ostirala eta larunbata  
© 943 362725 • © 688 690 361

# Bidaia eta antzezlanak antolatu ditu Gure Pakeak

Hiru ekintza antolatu ditu Gure Pakeak asteotarako; bi antzezlan eta egunpasa Iruñera.



Maiatzaren 27an, antzerki saioa Sutegin. Argazkia, artxibokoa.

## Maiatzak 27, asteazkena

- 18:00 Zuentzat antzerki taldearen "No hay ladrón que por bien no venga" antzezlanaren antzezlanak Sutegiko auditorioan. "Jose Angel Maciasek zuzendua. Horrela aurkezten du konpainiak lan hau: "Lapur bat etxe batean sartzen da eta, ustekabean iristen diren telefono deien, maitaleen eta emazteen artean, pertsonaien desleialtasunak eta bizitza bikoitzak azalera zirkulu batean amaituz, non guztiek nahasmen du baliatzen duten beren sekretuak ezkutatzeko, lapur batek ere errebelazioak 'ekar' ditzakeela frogatuz".

## Ekainak 6, larunbata

- 09:00 Ohiko lekutik irteera Iruñeara. -Hamaiketako: norbere kontura. -Iruñea ezagutuko da turismo-gidari batekin. -Bazkaria Doneztebeko Elortxuri jatetxean. -Bazkalostean, norbere kasa paseoa, kafea... Prezioa: 50 euro pertsonako.

## Ekainak 13, larunbata

- 18:00 "¿Quién ha matado a Verónica?" Binahi antzerki taldearen emanaldia Sutegiko auditorioan.

Antolatzailea: Gure Pakea.

## Udal liburutegiko hurrengo ekitaldiak

Hona hemen, uda aurretik deituak dituen azken ekintzen zerrenda:

### Maiatzak 30, larunbata

11:30 Ana Merinok bideraturiko idazketa tailerra (gaztelaniaz). Iraupena: 90 minutu.

### Ekainak 1, astelehena

16:00 "Sormena partekatuz", Usurbilgo irakurle gazteen topaketa Yolanda Arrietarekin. Iraupena: ordubete inguru.

### Ekainak 2, asteartea

18:30 Karmele Mitxelenaren "Zoriona, edo antzeko zerbait" liburuaren inguruko solasaldia. "Sutegi Liburutegian jada eskuragarri daude hainbat ale, aldez aurretik irakurtzea komeni baita".

## Ekintza zikloa, Aginagako guraso elkartearen eskutik

Agiangako San Praixku guraso elkarteak ekintza hauek antolatu dituela jakinarazi dio hedabide honi, ekainaren 1etik 19ra, 15:00-16:15 artean:

### Astelehen eta asteazkenetan:

- Eskupilota HH5etik gorako haurrentzat. Prezioa, haur bakoitzeko: 30 euro.

### Asteartean:

- Yoga HH4tik gorako haurrentzat. Prezioa: 20 euro.

### Ekainak 11, 18, ostegunak:

- Orientazio erronkak LH 1-6 artekoentzat. Prezioa, haur bakoitzeko: 25 euro.

- Izen-ematea: 639 902 952.

- Antolatzailea: Aginagako San Praixku guraso elkartea.

## KzGunera datozen ikastaroak

Maiatzean arratsalde, 16:00-20:00 artean irekiko dute.

- Maiatzak 18-29, 16:00-18:00 "Oinarrizko Interneta. Nabigatzen eta posta elektronikoko bidaltzen ikasi".
- Ekainak 1-9, 09:00-11:00 "Smartphoneak eta tabletak. Android gailua erabiltzen ikasi".
- Ekainak 10-12, 09:00-11:00 "WhatsApp. Bat-bateko mezularitza zure smartphonean".

- Ekainak 15-16, 09:00-11:00 "Argazkiei ukituak eman zure smartphonearekin".

- Ekainak 17-29, 09:00-11:00 "Google aplikazioak zure smartphonean".

- Ekainak 30, 09:00-11:00 "BakQ ziurtagiria".

### Informazio gehiago:

943 023 684  
tutor.usurbil@kzgunea.net

## 'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

### Denak hil

Don Justo Alzua medikua, ordurako zahartuxea, Txokoaldera joan da gaitxo bat ikustera. -Carlos Illarramendi gazteak ailegatzen ikusi du: *Aitona zaharra etorri da!*

-Don Justok, minduta: *Hi, gazteak ere hiltzen dituk e!*  
-Carlosek: *Gazteak, batzuk; zaharrak, denak.*

### Lagunak?

Ezaguna da gure Bitorren ezaguna da gure Bitorren patxada. Behin, afari batean, lagunak, adarra jartzeko, ozipina bota diote basora bera konturagabe. Bitorrek, zapla! dena barrura, ardo gorria delakoan.

Lagun guztiak begira-begira erreazioaren zain. Bitorrek, aurpegia mudatu gabe: *Hori egin duena, putakumea.*



Usurbil F.T.-ren egungo zuzendaritza taldeko kideak, 50. urtemugaren banderola eskuartean dutela.

# 50 urteko ibilbideari gorazarre, Sagardo Egunaren hasieran

Mende Erdiko ibilbideari gorazarre egingo dio igande honetako 43. Sagardo Egunak. Zehazkiago esanda, egoitzak elkarren ondoan dituzten bi kirol talde eta sagardotegi baten 50. urtemugaren ospakizunak abiaraziko du maiatzaren 24ko jaialdia. Izan ere, Usurbil F.T. eta Saizar sagardotegia omentzekoak dira haien urteurrengatik. Futbol klubekoekin izan da hedabide hau.

Biak urte kopuru bera ospatzen ari dira, elkarren ondoan kokatuak daude, nahiz alor desberdinetan diharduten lanean. Halere, bien urtemugek bat egin dutenez, egindako ahaleginaren aitortza jasoko dute maiatzaren 24an ospatuko den 43. Sagardo Egunean. Izan ere, aurtengoan, 50 urte betetako Usurbil F.T.-keta Saizar sagardotegiak emango diote hasiera edizio honi.

## "Erakusleho ederra"

"Harrituta baina pozik" jaso zuen Sagardo Egunaren Lagunak taldekoen telefono deia futbol taldeen bilguneko zuzendaritzak. Lanegunetan bezalaxe, esku bete lan izaten dute asteburuetan Haranen

nahiz Usurbildik kanpo jokatu ohi dituzten partidekin. Ospakizun entzutetsu hau tarteko, igandeko hitzordu guztiak bezperatara aurreratu nahi izan dituzte, "Usurbil F.T.-ko kide guztiak gonbidatuta daude" eta, igande goizeko 11:30etan frontoian egingo den Sagardo Eguneko hasiera ekitaldira. Omenduen esanetan, Sagardo Eguna "erakusleho ederra izaten da, Usurbilgo urteko egun handiena. Denok elkartzen gara bertan".

## "Lagunarte sare polita sortzen da"

50 urteotan futbol taldeen bilguneak eginiko ahaleginaren aitortza irudikatuko du

Sagardo Egunaren hasierak. Sorrera eta bost hamarkada hauetako ibilbidearen oroigarria izango da. Ekainean beteko dira bi urte hain zuzen, Usurbil F.T.-ren sortzaileetako bat, Benantxio Otaegi hil zenetik. Hastapenetik "zaintza, osasun eta hezkuntza eskola izan zela" kluba adierazi zion hedabide honi, 2007an eskainitako elkarrizketan. Filosofia horri segida eman nahi izan diote urteotan guztiotan jardundakoek. Hura sostengatzen duen kontzeptu gakoetako bat, egungo zuzendaritza taldearen esanetan, konpromisoa da, "konprometitzea norbere buruarekin eta klub honekiko". Horrekin batera, taldeko kide izateak dakarrena ere gorai-

patu nahi izan dute, gero herrian azaleratzen den harreman sarea. "Infantil mailara arte adinkideekin jokatzeko dute. Baina hortik aurrera, helduagoekin nahiz gazteagoekin, adin nahasketa izaten da. Hor sortutako harremanak senior mailaraino heltzen dira. Lagunarte sare oso polita sortzen da, gero herrian ikusten dena". Hortik aurrera, nork bere bidetik segitzen du bere bizimoduak, batzuk herri barruan, besteak kanpora doaz bizitzera. Baina elkarrekin topo egiten dutenean, "futboleko batera ibili izanagatik identifikatzen dira. Lotunea izaten da taldea bera".

## Futbol Eskola, hazkuntzan gakoa

Hori guztia ondoen irudikatzen duena, futbol klubeko zuzendaritza taldearen esanetan, Futbol Eskola da. Abiatu zutenetik bi hamarkada pasatxo igaro dira. Garai hartan, "zortzi urterekin hasitako hainbat jokalaririk orain ari dira uzten Usurbil F.T. Zuzendaritza talde batentzat, ibilbide oso hori egin izana, nola hazi eta eraldatzen joan diren ikustea pozgarria da".

Senior nesken taldeak klubaren urte zailetan bilguneari eutsi ostean, Futbol Eskola martxan jartzea gakoa izan zela diote zuzendaritzatik, ordutik gaur arte izan duten hedapenean. "Lau urte izaten dira Futbol Eskolan. Igotzen joan ahala, kategoria bakoitzeko ordezkariak sortzen joan da" herrikideekin hein handi batean, nahiz inguruko udalerrietatik ere Usurbil F.T.-ra jokatzera etorri izan dire-

## "USURBIL F.T.-KO KIDE GUZTIAK GONBIDATUAK DAUDE, IGANDE GOIZEKO HASIERA EKITALDIRA"

nekin; hala nola, Oriotik, Andoaindik, Lasarte-Oriatik edota Donostiatik. Hasieran, zuzendaritzatik azaldu digutenez, bazegoen halako zalan-tza giroa, ea zer bide egingo zuen une hartan klubak. 2010ean elkar ezagutzeko eta proba moduan, udaberriko oporraldian Bartzelonara eginiko bidaia giltzarria izan zela zioten. Urte haren bueltan, mugimendua hasi eta ordutik izen-emate kopuruak goranzko bide argia izan du gaur arte.

### Jarrera desegokiekiko kezka

Kezka iturri dituzte, azken urteotan hainbat kirol jarduerara eta jokalekuetan, baita Haranen ere, gertatzen ari diren jokabide onartezinek eragindako egoera zailak. Gai horri lotuta, une gaziak bizitzea egokitu izan zaie. Taldeak eta federazioetatik "oso kezkatuak" daudela jakinarazi digute, "hori ez da kirola, beste zerbaite da", ziurtatu dute. Gai hau lantzeko beharra azpimarratu dute, abiapuntu gisa mezu hau argi izanda; jokalariekin enpatia izatea. "Seme-alaba jokatzeko aribada, pentsatu berarengan", galdegin dute. Federazioarekin lankidetzan ari direla aipatu digute, hurrengo denboraldira begira neurriak gogortzeko. Halere, bide horretan urratsik emana du Usurbil F.T.-ko zuzendaritzak. Bere garaian jakinarazi moduan, Haraneko eremu bat ikus-entzuleentzat itxi egin zuten, egoerok saihesten laguntzeko, ikus-entzuleen aldetik izan ohi diren jarrera desegokiek jokariengan gutxiago eragiteko, baita entrenatzaileengan ere. Zentzu horretan, nabarmentzen jarraitu nahi dute neurketetan jarrerok ezin dutela lekurik izan, taldean une horretan "agintzen duena entrenatzailea dela. Utzi haien lana egiten".

### Konpromisoa eta hurbiltasuna

Beste 50 urte bete eta mendeurrenara heltzeko futbol klubak zer beharko lukeen



Usurbil F.T.-ko taldeek kirolean errespetua sustatzeko, urte hasieran eginiko minutuko isilunean ateratako irudia.

galdetuta, zuzendaritzari dagokionean, esan digute "jende konprometitu eta hurbilekoa" beharko luketela, barruko lanez, zereginaz arduratzeaz gain, "kideak ezagutuko dituen eta alderantziz" ere, "haiek zuzendaritza taldea ezagutzea" eta harekin hartueman izango duena. Kide berrien bila dabilta, urte hasieran erreleborako deia egin ostean. Dagoeneko bi entrenatzaile batu dira Usurbil F.T. zuzentzen segitzeko etorkizuneari. "Datozeneri eskatu nahi genieke klub honi eustea". Trantsizio horretarako beharrezko laguntza eskaintzeko prest dira, orain arte zereginotan jardundako kideak.

Gogoan izan, urtemuga betean zirela, egungo zuzendaritza taldeak erreleborako deia egin zuen. Bi hamarkadako ibilbidearen ostean, bilgunea arnasberritzeko gonbita egin

**"18 TALDE DITUZTE  
ETA 350 JOKALARI.  
DATORREN  
URTEAN, ZIUR ASKI  
GEHIAGO IZAN  
DAITEZKE"**

zuten. Deialdi horretatik klubeko bi entrenatzaile sartuko dira, egungo kideek momentuz jarraitu asmo duten zuzendaritza taldean.

### Matrikulazio garaia

Bilgunea handitu egin daiteke hurrengo denboraldian. Egun, Futbol Eskola kontuan izanda, hemezortzi talde dituzte eta 350 bat jokalaria. "Datorren urtean, ziur aski gehiago" izango direla jakinarazi digute. 50. urtemuga ekimenak ekainarekin batera borobildu asmo dituzten arren, ez dute baztertzen, urtebetetzea urrian izanik, uda ostean beste ekimenen bat antolatzea. Hurrengo 2026-27 denboraldi hasieran izango da hori. Kirol urte berri horri begira jarria da jada, Usurbil F.T.-ko zuzendaritza taldea. Izan ere, zabalik du maiatzaren 31ra arte, denboraldi berrirako

**"ZABALIK DU  
MAIATZAREN 31RA  
ARTE, DENBORALDI  
BERRIRAKO  
Matrikulatzeko  
EPEALDIA"**

matrikulatzeko epealdia senior, jubenil, kadete edota infantil mailetan nahiz Futbol Eskolan. Orain arte, abuztuan bidertzen zuten tramitazio hori, baina hilabete horretan aurre-denboraldiko hainbat neurketa jokatzeko dituztenez, orduko dena prest izan eta jokalaria bakoitzak bere fitxa indarrean izateko, aurten, aurreratzea erabaki dute izen-emateko deialdia. Telematikoki bidertzeko aukera ari da eskaintzen futbol taldeen bilgunea, sare sozialen bidez esekitako estekaren bidez.

Aurretik, Sagardo Egunari hasiera emateko izango duten aukera, abiapuntua izango da era berean, Usurbil F.T.-koen tza, 50. urtemuga zikloa borobiltzeko hurrengo asteotarako iragarritako ekimenei heltzeko. Bost hamarkada hauen historia bilduko duen erakusketa irekiko dute Sutegin, futbolari beterranoen topaketa bat ere prestatzekoak dira edota 50 urteotan eraikitako komunitatea bilduko duen bazkari jendetsua eta musikaz nahiz gaztetxoentzako jolasez giro turiko jaialdia ere iragarri dute; hori guztia, ekainerako. Datozen asteotan eskainiko dituzte, ekimen ziklo horri buruzko xehetasun gehiago.

# Omenaldia eta herri lehia, San Ixidro Egunez

Herrikideak protagonista nagusi izandako San Ixidro Eguna ospatu zuten maiatzaren 15ean.

Hainbat herrikide izan zituen protagonista hilaren 15eko San Ixidro Egunak. Hasteko, Alkartasuna kooperatibak eta Usurbilgo Udalak antolatutako jaialdian zehar, Kattalin Arzallus Mitxelena omendu zuten. Ezusteko ederra hartu zuen frontoian bertan senideekin zen Arzallusek, omenaldiaren berri uanean bertan jasotakoan. "Eman duzunagatik esker onez", hitz horiek idatziak zituen oroigarria eta otarra jaso zuen, antolatzaileen eskutik.

Euskaltzalea, ikastolen sorreran eragindakoa, herrigintzan jardundakoa... bere ibilbidea eskertu eta goraiatu zuten. Jaialdia girotzeaz gain, berari bereziki eskainitako bertsoak kantatu zizkioten Ane Labaka Mayozen eta Beñat Gaztelumendi Arandiak.

Omenaldiaz eta antolatzaileek banatutako hamaiketako ederraz gain, Ostolazaren eta Larrañagaren trikiti doinuekin batera giza proba jokatu zen, aurreko orduetan eginiko euri-jasak tarteko, baldintza



Kattalin Arzallus Mitxelena omendu zuten.

zailtan. Halere, gogotik lehiatu ziren lau herritar. Hemen duzue sailkapena:

- 1-Gabriel Sarasola Ibarгойen: 4 plaza, 6 zinta eta 88 zentimetro
- 2-Imanol Zaldua Unanue: 4 plaza, zinta bat eta 45 zentimetro.
- 3-Iurgi Mendiluze Zuloaga: 3 plaza, 3 zinta eta 96 zentimetro.

4-Iñaki Portularume Unanue: 3 plaza, zinta bat eta 85 zentimetro.

**"EZUSTEKO EDERRA HARTU ZUEN, FRONTOIAN SENIDEEKIN ZEN ARZALLUSEK"**



Giza proban ahalegin itzela eginiko herrikideak.



Eguraldia tarteko, baldintza zailtan egin behar izan zuten giza proba.



Hamaiketako goxo askoa banatu zuten antolatzaileek.



Ane Labakak eta Beñat Gaztelumendik bertsoan girotu zuten jaialdia.



Anuk eta Elene herrikideek girotu zuten, hilaren 17ko manifestazio amaiera.

## "Erasoen aurrean, erresistentzia transmaribibolloa!"

Maiatzaren 17ko LGBTIQ+ Fobiaren Aurkako Egunean, aldarri horrekin plazaratu zen Buruntzaldeko mugimendu transmaribibolloa eta femi-

nista, Hernaniko kaleetan eginiko manifestazioan. Denon askatasuna kolokan dagoela eta, kalean antolatzen segitzera deitu zuten.



Hilaren 26rako beste greba egun bat deitua dute erraustegiko langileek.

## Erraustegiko langileak bigarren asteartez greban

Urte hasieratik lan-hitzarmen duinagoaren alde borrokan ari dira Zubietako erraustegiko langileak. Lantoki atariko mobilizazioetatik Foru Aldun-

di atariko greba egunetara igaro dira maiatzean. Hilaren 12an egin bezala, 19an ere protesta egin zuten Gipuzkoa plazan.



Udal zerbitzuak etenda izan ziren hilaren 14an.

## "Udaletako langileon lan-baldintzak okertzen ari dira urtez urte"

Horregatik, ELA eta LAB-ek deituta, EAE-ko sektore horretako hilaren 14ko greba egunarekin bat egin zuten Usurbilgo udal langileek ere.

Udal zerbitzuak etenda egon ziren egun horretan. Lan-baldintzak hobetzeko akordio eske ari dira. Hilaren 4an greba eguna izango dute berri.



Txokoaldeko geltoki ondoan egin zuten larrialdi-simulakroa.

## Larrialdi-simulakro ikusgarria egin zuten Txokoalden

Larrialdi-simulakroa egin zuten larrialdi zerbitzuek maiatzaren 12tik 13rako gauean, Txokoaldeko tren-geltokiaren ondoan. Tren istripu antzeztu

batean esku hartu behar izan zuten larrialdi zerbitzuek, benetan gertatu balitz bezala, inoiz halakorik jazoko balitz nola aritu ikasi eta hobetzeko.

 943 361 182  
**EROSKI** / city  
 kale Nagusia 10, USURBIL

ZUEN PUBLIZITATEA HEMEN  
**943 360 321**  
 noaua@publizitatea.eus

  
 Zubiarrenea 2, 943 36 55 81



"Festa egun eder bat" prestatzen ari dira Lanbide Eskolan. LANBIDE ESKOLA

## Zubieta Lanbide Eskolaren 50. urtemuga

Mende erdiko ibilbidea jaialdi batekin borobildu nahi du, maiatzaren 30ean. Zubietako Herri Batzarrarekin eta Zubietako Jai Batzordearekin osatu duen egitaraua eman du argitara.

### ARITZ LASARTE

Argi dute, komunitatean ospatu nahi dute mende erdia. "Aurten, ospatzeko arrazoi berezia dugu... eta zurekin batera ospatu nahi dugu!", jakinarazi dute. Horretarako, aipatu moduan, "festa egun eder bat" prestatzen ari dira, "Zubieta Lanbide Eskolaren 50 urteko ibilbidea elkarrekin gogoratu eta ospatzeko".

Izan ere, mende erdi hau ospatzeko iazko ekainean hasitako ospakizun zikloaren abiapuntuan, irudi eta izen berritua

aurkeztu zuten; ordutik, Zubieta Lanbide Eskola da, ordurarte "Usurbilgo" gisa ezaguturikoa, "baina betiko izpirituarekin: ikasle, langile, familia eta komunitate osoaren topagune" izaten segitzen baitu.

### Egun osoko jaialdia

50. urtemugaren harira, eskolako atzoko eta egungo komunitatea elkartu nahi ditu hilaren 30eko egun osoko topaketak. Goizean hasita, hainbat ekintza antolatu asmotan dira. Eguerdian, bazkaria iragarri

dute eta gero, bazkaloste musikatua izango dute, arratsaldetik gauera luzatuko diren emanaldiekin. "Zatoz eta ospatu dezagun elkarrekin!", egin dute gonbita.

### Aurrematrikulazio garaia

50 urteak ospatzeko jaialdia- ren atarian, gogoan izan, maiatzaren 22ra arte zabalik izango duela Zubieta Lanbide Eskolak 2026-27 ikasturterako aurrematrikulatzeko epealdia. Gogoan izan, erdi eta goi mailako zikloak, espezializazioak... eskaintzen ditu ikastetxeak. Informazio gehiago: 943 364 600 [lhusurbil.eus](http://lhusurbil.eus)

### Urteurreneko ekitaldiak

#### Maiatzak 30, larunbata Zubietako plazan:

- 10:00etan hasita, ekintza ezberdinak.
- 14:30 Bazkaria: Menua: sarre- rakoak, paella mistoa edo begetala eta postrea eta kafea. Txartelak salgai Zubieta Lanbide Eskolan, Alamandegin, Usurbilgo Bordatxo eta Lasarteko Ilargi tabernetan. 25 euro (20 eurotan langabeentzat).
- 18:00 Kita del Pare txaranga.
- 20:00 Txilipipar.
- 22:30 Dj Zzero.
- Oharra: txosna egongo da.
- Antolatzaileak: Zubieta Lanbide Eskola, Zubietako Herri Batzarra, Zubietako Jai Batzordea.

## Ikastola Eguneko bazkaritarako txartelen salmenta

Hasiak dira saltzen, ekainaren 6an ospatuko den Ikastola Eguneko bazkaritarako txartelak. Hilaren 22an, 26an eta 29an, 16:30-17:00 artean Age- rialdeko jolastokian eta hilaren 27tik 29ra, ikastolako idazka- ritzan eskuratu ahalko dituzue, 8:00-13:00 artean. Gehienez, 500 laguntzako lekua izan- go duen otordurako bi menu prestatuko dituzte ekainaren 6ko Ikastola Eguneko bazka- ritarako eta horietako bakoitzak osagaiok izango ditu:

### Ikasleentzako menua:

Makarroiak tomatearekin, oilaskoa, izozkia, ogia eta ura. Prezioa: 11 euro.

### Helduentzako menua:

Entsalada, oilaskoa, tarta, ogia, sagardoa/ ardoa/ ura, kafea eta pattarra. Prezioa: 17 euro.

### Oharrak

Otordu horri begirako zenbait ohar plazaratu dituzte anto- latzaileek. Batetik, "alergiaren bat izanez gero, txartela eros- terako garaian, bertan jakina- razi" behar dela berri eman dute. Horrez gain, "LH Ietik aurrerako ikasleak beraien taldearekin eseriko dira, baina norbaitek hala nahi ez badu, tiketa erosterakoan adierazi behar du". Azkenik, "talde bat osatzen duten pertsonen kopuruaren berri eman ahal izango da, elkarrekin eseri ahal izateko, frontoian bertan 12:00ak arte. Ordu horren on- doren iristen direnek ez dute bermatuta izango elkarrekin eseri ahal izatea".

### Frontoian izango da otordua

Frontoian egingo da bazkaria bazkaloste girotuarekin. Une horretan hain zuzen, "ikasleen musika emanaldiak izango ditugu arratsalde girotzeko". Bazkalaurretik ere hitzordu gehiago izango dira urtero moduan.

## Santueneko Gure Elkartearen ospakizuna

Santueneko Gure Elkartea jubilatuen elkarteko hiru kide dituzue argazkian. Erdikoa Maria Jesus Agirre da. Bere 75. urteurrena ospatzeko eginda- ko bazkarian, oroigarri bat jaso zuen. Bi lehendakarien eskutik jaso zuen oparia. Batek lehen- dakari kargua utzi du eta besteak lehendakari kargua hartu berri du. Atxega Jauregian egin zuten ospakizuna.



Maria Jesus Agirreri Gure Elkartekoek oroigarri bat oparitu zioten. GURE ELKARTEA



Zabalduz kooperatibak esku-hartze sozialean egiten du lan eta Beterri Saretuz-eko kide da.

# Zabalduz: "Beterri Saretuz-ek elkarlanean aritzeko aukera eskaintzen digu"

Aitor Gomez Zabalduz kooperatibako kide da eta inklusiorako pisuetan egiten du lan. "Tamaina erdiko kooperatiba gara, handitzen ari gara eta gero eta programa gehiago ditugu eskuartean".

## Zein da Zabalduz kooperatibaren zeregin nagusia?

Zabalduzek esku-hartze sozialean lan egiten du. Gipuzkoan hainbat programa kudeatzen ditu: Ametzagañako larrialdi zentroa kudeatzen dugu; gazteen emantzipaziorako pisuak; inklusiorako etxebizitzak bai gazte zein helduentzat, kale egoeran edo eskusio egoeran egon den jendearentzat; familia etxebizitzak, normalean amak seme-alabekin bizi direnak; Auzosare programarekin barkadadean bizi diren pertsona helduei akonpainamendua egiten diegu; inklusio soziolaboralerako programa, gazteen eta enpresen arteko zubi-lana egiteko; eta Bertatik programa, hezitzaileen laguntzaz lanera-ko prestatzen ditugunak.

Nik, inklusiorako pisuetan egiten dut lan, eta bertan etxebizitzetan bizi diren erabilitzaileei laguntza ematen diet eguneroko egin beharrekoetan: erosketak egitera lagundu,

medikura lagundu... Askok, gainera, hizkuntza ez dute ondo menperatzen, etorkinak baitira gehienak.

## Nola islatzen dituzue Ekonomia Sozial Eraldatzaileak zuen eguneroko praktikan?

Guk Zabalduz-en sinisten dugu enpresa harremanek interkooperazioan oinarrituta egon behar dutela, eta hala egiten dugu. Adibidez, gure wifia eta sakelekoen SIM txartelak Izarkom kooperatibari kontratatu dizkiogu, energiarekin lotutakoak Goienerrri, besteak beste. Guk sinesten dugu kooperatiben laguntza edo elkar-emate horretan badagoela zer eman, eta beste enpresa batzuk ekidin ditzakegu. Bertatik programa adibidez, Hernaniko burujabetzaren dinamikaren barruan dago sartuta, gu Hernanin kokatzen baikara.

## Zergatik erabaki zenuten Beterri Saretuzen parte hartzea?

Alde batetik, interkooperazio-ko sarea delako, eta Hernanin kokatuta gaudenez, Beterri-Buruntza eskualdearen parte gara. Baina gehienbat, beste kooperatibekin filosofia partekatzen dugulako, eta interesgarria iruditu zitzaigun guk eman genezakeena eskaintzea, eta beste kooperatibek guri eskaini diezaguketena jasotzea.

## Zer ematen diozue zuek Beterri Saretuzi? Eta sareak zuei?

Gehien ematen diguna elkarlanean aritzea da. Azken finean, lagun berriak egitea da eta nonbaiteko interesa edo beharra dugunean lagun berri horiei eskatu ahal izatea. Beterri Saretuz-en gauden enpreson jarduna oso anitza da. Ulertzen dugu antzeko pentsaerak eta filosofia bera edukitzeak egokia eta betegarria izan daitekeela denontzat. Aberastasuna ematen digu Zabalduz-i. Zabalduz tamaina erdiko kooperatiba da, langile asko gara, handitzen ari

gara, gero eta programa gehiago ditugu eta horrelako lagunak edukitzea onuragarria da Zabalduzentzat.

## Etorkizunera begira, zein erronka, zein aukera ikusten dituzue?

Sarea handitzea ondo egongo litzateke. Izan ere, orain arte ez gara oso sare handia, eta harremanak estutzea ere erronka gisa ikusten dugu. Azkenaldian, bakoitza bere jardunean dabil eta pixka bat alde batera utzi dugu. Nik uste dut sarea ahuldu denez, berriro ere indartzea eta sendotzea oso ondo dagoela. Horretarako, kooperatiba berriak sartuko balira, Beterri Saretuz-ek indar pixka bat hartuko lukeela uste dut, baita sendotu ere.

## Beterri Saretuz sareko kide zarete. Zer helbururekin sortu zen?

Beterri Saretuz eskualdeko enpresa, kooperatiba eta eragile ezberdinek osatutako elkarlan-sarea da. Helburua da tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzaile batetik sustatzea, Ekonomia Sozial Eraldatzaile oinarri hartuta. Hau da, jarduera ekonomikoa pertsonen eta komunitatearen zerbitzura jartzea, eta elkarlanean oinarritutako lurralde eredu bat indartzea.

### Beterri Saretuz

Beterri Saretuz-ek eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzaile oinarri duten eragileak ikusarazten jarraituko du datozen hilabeteetan, hedabide lokalen bidez eta elkarrizketa sorta honen bitartez. Helburua argia da: bertan badagoela bestelako ekonomia eredu bat erakustea, eta komunitatearekin lotura estuan diharduten proiektuak ezagutaraztea.



Sari banaketa ekitaldian, Beat Eroak ekimeneko protagonistak eta aurkezleak, elkarrekin, Astigarragako Erriberan. AIURRI.

# Beat Eroak: hitzarekin eta musikarekin jolasean

Beat Eroak ekimena antolatu dute Buruntzaldeko Euskara eta Gazteria Zerbitzuen lankidetzari esker. Odei Barrosok eta Telmo Trenorrek 12-16 urteko eskualde osoko gazte taldeak trebatu dituzte. Hala, maiatzaren 7an egin zuten sari-banaketa ekitaldia

**LIDE RUIZ TELLERIA** ASTIGARRAGA Proposamen berritzailea egin du, aurten, eskualdeko euskara zerbitzu mankomunatuak: kultura garaikidean sakontzeko Beat Eroak egitasmoa martxan jarri du. Lehen edizioko partaideak elkartu zituzten Astigarragako Erribera kultur-gunean. Bertan, eskualdeko gazteek beren kantak aurkeztu zituzten jendaurrean, eta entzuleen zein epaimahaiaren botoak aintzat hartuta, Andoingo gazteek sortutako "Laguntasuna" abestia izan da irabazlea. Beat Eroak proiektua, Buruntzaldeko 12 eta 16 urte bitarteko gazteei zuzendutako rap tailerra eta lehiaketa izan da, helburu nagusia

honakoa izanik: euskararen erabilera sustatzea. Letra eta musika sortzeko ekimena eskualdeko sei udalerrietan antolatu da, hots, Andoain, Urnietan, Usurbilen, Lasarte-Orian, Hernanin eta Astigarragan. Otsailean abiatu eta udalerrri bakoitzean bina saio antolatu zituzten: bata, otsailean eta, bestea, martxoan. Lehenengoan, Odei Barroso rapero eta bertsolariarekin oinarri musikala aukeratu eta rap letrak landu zituzten. Bigarrenean, berriz, Telmo Trenor DJ disko-jartzaile eta ekoizlearen laguntzarekin, landutako oinarri musikalarerekin eta osatutako letrekin, kantua sortu eta grabatu zuten.

Saio horien ostean, udalerrri bakoitzak bere kanta argitaratu zuen, eta horien arteko irabazlea hautatzeko prozesua abiatu zen. Irabazlea, esan bezala, entzuleen eta epaimahaiaren botoen bidez hautatu dute. Hain zuzen, bozka emateko epea apirilaren 30era arte egon zen zabalik.

**ANDOAIN, URNIETA, USURBIL, HERNANI, LASARTE-ORIA ETA ASTIGARRAGAN ANTOLATU DA BEAT EROAK EKIMENA**

## Lehen edizioko partaideak

Udalerriz udalerrri, talde bakoitzak aukeratutako kantuaren izenburua eta partaideak:

### Andoain

#### "Laguntasuna"

Partaideak: Irati Hernandez, Euri Zubizarreta, Ekhi Ugalde, Aroa Etxarte, Jare Lizarralde, Malen Torres, Aiur Garcia.

### Urnietan

#### "Hau da"

Partaideak: Iker Ramos, Ramon Grancsa.

### Hernani

#### "Denbora pasa"

Partaideak: Daren Suso, Liher Arruarte, Axel Mendizabal, Xabi Martinez.

### Astigarraga

#### "Gazteen bizitza"

Partaideak: Oier Lobato, Adei Larrañaga, Oier Casado, Markel Ruiz, Adur Delgado.

### Usurbil

#### "Larunbat gauak"

Partaideak: Anne Lasa, Katixa San Millan.

### Lasarte-Oria

#### "Hauek dira"

Partaidea: Ixone Acuña.

**Kantu guztiak, Youtuben entzungai eta ikusgai** Odei Barroso raperoaren laguntza izan zuten kantuaren sorkuntzan. Eta Telmo Trenor DJarekin batera sortu zuten musika.



Irabazleak eta aurkezleak, elkarrekin. AIURRI

## "Sariaz gain, esperientzia oso atsegina izan da"

**ANDOAINGO TALDEA** BEAT EROAK-EKO IRABAZLEAK

Irati Hernandez, Euri Zubizarreta, Ekhi Ugalde, Aroa Etxarte, Jare Lizarralde, Malen Torres eta Aiur Garcia zazpikotea.

**Nola sentitu zarete saria jasotzean?**

Oso pozik gaude, ez genuen espero. Ez genuen uste azkenak izango ginenik, ezta lehengoak ere. Sariak ilusio handia egin digu, baina, sariaz gain, esperientzia oso atsegina izan da. Errepikatzea, zalantzarik gabe.

**Zuen abestian jorratutako gai nagusia laguntasuna izan da. Zer dela eta erabaki duzue horren inguruan abestea?**

Abestian esaten dugun bezala, lagunak bizitzako parte oso garrantzitsua dira. Elkarren artean asko laguntzen gara, eta laguntasunak mantenduko ez bagenu, ezingo genituzke gauza asko egin. Lagunen beharra dugu.

**Zuen abestiaren kasuan, zein uste duzue izan dela saria irabazteko gakoa, letraren lanketa ala oinarri musikalaren aukeraketa?**

Letra, dudarik gabe. Oso esanahi polita du, eta oso ondo adierazten du guk laguntasunaren inguruan pentsatzen duguna.

**Saria bideoklip profesional bat egitea da. Badakizue nola egingo duzuen?**

Oraindik ez. Baina oso ilusioa natuta gaude.

**Zuen kasuan, hainbeste partaide izanik, nola moldatu zarete denen artean abestia osatzeko?**

Denon artean antolatuta ginen, eta ondo moldatu gara. Lehengo, bakoitzak bere zatia egin zuen. Ondoren, bakoitzak bere zatia aurkeztu, eta denon artean abestiaren errepika osatu genuen. Beste herriekin alderatuta, gu izan gara partaide gehien izan dituenak.

**Lehen edizioan parte hartzea, zer nolako esperientzia izan da?**

Bai, oso polita izan da. Espetro dugu hurrengo urtean parte hartzeko aukera izatea.

**Zer moduz moldatu zarete Odei eta Telmorekin?**

Oso ondo, asko lagundu ziguten, eta haiengandik asko ikasi genuen. Horrez gain, oso jatorrak dira. Finean, rap abesti bat euskaraz egitea oso polita izan da.



Enara Dominguez eta Yan Pinto, lehiaketaren aurkezleak. AIURRI

## "Oso dinamikoak iruditu zaizkigu kantuenak"

**YAN PINTO, ENARA DOMINGUEZ** AURKEZLEAK

Aktore gazteek ekitaldia gidatu zuten. Beat Eroak egitasmoko proposamenak Youtubera igota daude.

**Nolakoa izan da emanaldia? Ohi-tuta zaudete aurkezpenak egitera?**

**Yan Pinto.** Bai, baina, hala ere, beti sorrarazten digu urduritasuna.

**Enara Dominguez.** Hori da. Urduritasuna ez da inoiz galtzen. Baina beharrezkoa da; beti behar da tentsio puntu hori.

**Emanaldian, gurasoak ere egoteak errespetua eman dizue?**

**E.D.** Niri umeek errespetu handiagoa ematen didate. Akatsen bat baldin badago, gurasoak ulerkorragoak izaten dira.

**Y.P.** Bai, gurasoek badakite egoten, eta ez bazaie gustatzen, ez dute hain argi adieraziko. Umeak naturalagoak dira, eta haien iritzia gehiago adierazten dute.

**Antzele gisa, zein izan da zuen ibilbidea?**

**Y.P.** Duela hiru urte graduatu ginen Bizkaiko Antzerki Ikastegian. Enara antzerkigintzan ibili da, batez ere, eta ni, berriz, ikus-entzunezkoetan. Iaz Goazeneko aurreko ediziorako hartu ninduten, eta horretan aritu nintzen.

**Zuen kasuan, rapa gustuko duzue?**

**Y.P.** Bai. Egia da ez dudala asko kontsumitzen, baina asko gustatzen zait abesti batzuetan rap zatiak txertatzen dituztenean.

**E.D.** Bai. Txapelketak raparen inguruan ikasteko balio izan digu. Izan ere, proposamena jasotzean, raparen inguruko informazioa bilatzen hasi ginen, gaiaren inguruan behar adina jakiteko.

**Y.P.** Bai, eta informazio horri esker, guk ere gure abesti propioa sortu dugu, eta gaur aurkezteko aukera izan dugu.

**Zer iruditu zaizkizue abestiak?**

**E.D.** Oso dinamikoak iruditu zaizkigu, eta nabaritzen da euren sortu dituztela. Letren bidez, haiek bizitutako esperientziak kontatzen dituzte, eta haien errealitatea islatzen dute.

**Y.P.** Bai, haien mundua eta pentsamenduak asko islatu dira abestietan. Kanten artean ere desberdintasun handiak egon dira. Usurbilgo bi partaideek, adibidez, rapa kantuarrekin uztartu dute. Berezitasun hori asko gustatu zaigu.



0-3 adin tarterako Musika Txokoa eta alboka, berrikuntzen artean.

# Zumarten matrikulatzeko garaia

2026-27 ikasturterako Zumarte Musika Eskolan matrikulatu asmo duenak, maiatzaren 25etik 29ra bideratu beharko du izen-ematea.

## ARITZ LASARTE

Epealdi horretatik kanpo matrikulatzen duenak bere plaza galduko du. Bi modutan matrikulatu ahalko da; zumarte.eus atariaren bidez edo presentzialki, hilaren 26an eta osteguneari hilaren 28an, 10:00-12:30 artean eta 18:00-19:00 artean, musika eskolaren egoitzaren bulegoan.

Irailean abiaraziko duen ikasturte berrirako eskaintza ere zerrendatu du jada Zumartek. Badira zenbait berrikuntza. Hainbat instrumentuetan trebatzeko aukera izango da; oraingo honetan, alboka jotzen ikasteko aukera ere eskainiko dute. Gainerakoan, biolina, eskusoinua, flauta, gitara, kantu teknika, klarineta, organoa, panderoa, perkusioa, pianoa, saxofoia, trikitixa, tronpeta, tronboia eta txistua izango dira aukeran.

Horrez gain, 0-3 adin tarteari zuzenduriko musika izango da eskaintza horretan txertaturiko beste berrikuntza. 4-7 urte arteko zuzenduriko Musika Txokoa, musika mintzaira, abesbatza eta talde

instrumentalak, hortxe Zumarteren hurrengo ikasturterako eskaintza osoa.

## Ordainketak izena eman eta gero

Izena emateaz gain, ordainketak bideratu beharko dira baina hori geroago egin beharko da, maiatza amaierako matrikulazioa igaro, "plaza kopuruen zozketak egin eta onartutako ikasleen zerrendak argitaratu ondoren". Musika txokoa eta musika mintzairako ikasle berrien kasuan, "eskainitako plaza kopurua baino eskaera gehiago badago, matrikulazioa bukatu eta hurrengo osteguneari arratsaldeko 18:00tan zozketa egingo da. Zozketaren ondoren itxaron zerrenda egingo da eta bajarik izanez gero, itxaron zerrendako ikasleak sartuko lirarteke".

Musika eskolatik zehaztu dutenez, "zuek adierazitako kontu korrontetik, ikaslea onartua izan den ikasgaien matrikulagatik ordaindu beharreko tasaren %10 kobratuko zaizue ekaina bukaeran, %40 iraileko lehen astean eta %50 abendua hasieran".

Zumartetik gogorarazi dutenez, familia ugarien nahiz familia unitate bereko hiru senide edo gehiago izena emanda dauden kasuetan, "izen-ematearen prezioan %40ko deskontua egingo ziaio izen-emanda dagoen ikasle gazteenari (hileko kuotan ez dago deskonturik)". Hobariei lotutako bi ohar; familia ugarien kasuan txartela eraman beharko dute Zumarteko bulegora eta familia unitate bereko hiru senide edo gehiago izena emandakoen kasuan, "ikasle gazteenak bikiak izanez gero, ikasle bati bakarrik egingo zaio deskontua". Matrikula tasaren itzulketarik ez da egingo.


Plazen banaketan jada Zumarteko ikasleak direnek izango dute lehentasuna, "ondoren, Usurbilen bizi diren ikasleak eta hauen artean plaza guztiak banatu ondoren, libre gelditzen diren plazak Usurbiletik kanpo bizi diren ikasleen artean banatuko dira".

Ikasketak hasitakoan, "instrumentua ikasten hasten direnen artean (tronboia, saxofoia, tronpeta edo biolina), nahi izanez gero eta ikasleentzat egokiak badira (tamaina etab.), Zumartek dituen instrumentuak urtebetez utziko zaizkie. Galdetu bulegoan edo bulegoa@zumarte.eus helbidean".

## Informazio gehiagorako:

zumarte.eus  
bulegoa@zumarte.eus  
943 371 594  
Kale Nagusia, 45

**"HAINBAT INSTRUMENTUETAN TREBATZEKO AUKERA IZANGO DA; ORAINGO HONETAN, ALBOKA JOTZEN IKASTEKO ESKAINIKO DUTE"**



'Zutik' filma eskainiko da.

## Rikardo Arregiren oihartzuna, 60 urte geroago

### Maiatzak 22 ostirala

• 18:00 'Zutik' film emanaldia Sutegiko auditorioan. Rikardo Arregik Usurbilen 1966an emandako hitzaldi gogoangarria oinarri hartuta Maluta Filmsek ekoiztutako film laburra, "euskaltzale andoaindarrak euskal gizartean utzi zuen arrasto azaltzeko, gaur egun, tamalez, orduan esandakoek duten gaurkotasunaz jabetu gaitezen".

• Segidan, Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia. Bertan parte hartuko dute Ainara Mendiolak (filmaren zuzendaria), Ismael Manteolak (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabelek (Euskalgintzaren Kontseilua).

• Itxiera, Sutegitik Remigio Mendibururen eskulturara bidean. Parte-hartzaileak: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo.

• Sarrerak: gonbidapenak doan, usurbilkultura.eus plataforman.

• Antolatzaileak: NOAUA! KE, 650 Usurbil Bizi.



Araitz Larreak 0-3 urte arteko umeentzako ikastaroa eskainiko du ikasturte berrian.

# "Musika Txokoan, taldean egoten ikasten dute, ondo pasatzen dute"

**ARAITZ LARREA** ZUMARTE MUSIKA ESKOLAKO IRAKASLEA

0-3 urte bitarteko haurrei eskainitako ikastaroa izango da aurten, Zumarteren berrikuntzetako bat. Orain arte, azarotik ekainera egiten zituzten saioak baina orain, irailtik ekainera izango dira.

## **ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO** Nolatan antolatu duzue 0-3 urte bitarteko ikastaroa?

Lau urtetik aurrerakoan ikastaroan urte asko daramatzagu, eta Euskal Herriko Musika Eskolen elkarteak antolatuta ikastaro asko egon dira. Nik ikastaro horiek egin ditut, eta erakargarria iruditzen zitzai-  
gun. Hortik atera zen ikastaroa egiteko ideia. Proposamena egin ziguten, ideia gustatu zitzai-  
gun eta bideragarria zela iruditu zitzai-  
gun.

## **Zer egiten da horrelako ikastaro batean?**

Ba gezurra badirudi ere, musikako oinarrizko ezagutzetatik hasten gara: erritmoa lantzen, musikaren altura des-

berdinak lantzen... Baina batez ere, haiek musikarekin gozatzea du helburu. Ondo pasatzea, abestiak abestea, errexitatu erritmiko batzuk ere egiten ditugu, diktaketa melodikoak egiten ditugu haiek jakin gabe horretan ari direla. Hori guztia erritmoan sartzen joateko.

Ondoko ikaskideak entzuteak duen garrantzia ere lantzen

**"GEZURRA  
BADIRUDI ERE,  
MUSIKAKO  
OINARRIZKO  
EZAGUTZETATIK  
HASTEN GARA"**

dugu, aurrera begira, musikan jarraituz gero garrantzia duelako.

## **Zer eragin du musikak pertsona hain gazteetan?**

Nik uste oso ona dela. Kognitiboki musikak dauzkan ekarpenak onak dira, eta txikitatik egiteak laguntzen du; eta taldean izanda, beste balio batzuk ikusten dira. Adin txiki horre-

**"KOGNITIBOKI  
MUSIKAK DITUEN  
EKARPENAK ONAK  
DIRA; TXIKITATIK  
EGITEAK  
LAGUNTZEN DU"**

tan musikan sartzen direnean, gero barneratuagoa izaten dute erritmoa, eta hori nabaritzen da gero, bai instrumentuak jotzerakoan, bai solfeo egiterakoan, baita abestera-koan ere. Nik uste horretan nahikoa eragiten duela.

## **Baina ez diezue instrumenturik jotzen irakasten ezta?**

Ez, baina adibidez, kanpaiak ateratzen ditut, eta kanpaiekin hainbat ariketa egiten ditugu. Kanpai horiek afinatuta daude, beraz, belarrirako ondo. Perkusio txikiko instrumentuak ere ateratzen ditut, eta horiek ere jo egiten dituzte. Libreki jotzen uzten diet, hori ere ondo datorkielako, baita nik arau batzuk jarrita ere.

Batzuetan, besteak jotzen bukatu arte itxaron behar dute. Orduan, txikitatik ikasten hasten dira. Nik uste onura ez dela musikarako bakarrik, orokorrean, haien bizipenerako dela uste dut.

## **Zein maiztasunekin egingo dituzue saioak?**

Hamabost egunean behin egingo ditugu, eta ordubeteko saioak izango dira.

## **Eta iraupenari dagokionez, ikasturte osokoa izango da?**

Bai, aurten bai. Orain arte ikastaro moduan egon da, eta azaroan hasten ginen eta ekainean bukatzen genuen. Datoren ikasturtetik aurrera, irailtik ekainera izango da.

## **Jendea animatzen zen ikastaro horietara?**

Bai. Ez dakit zenbat urte daramatzagun ikastaroa egiten, baina urtero bi talde atera izan dira. Berriri diot, nik uste ondo datorkiela ez delako musika ikastea bakarrik, taldean egoten ikasten dute, ondo pasatzen dute. Konfiantza hartzean haiek ere abestiak proposatzen dituzte, orduan, haien gustuak zein diren jakiten dira, ikasten jakiten dute, besteekiko harremanak lantzen dituzte. Hori dena lantzen da.



"Enpresekin entrenatzen ibiltzen nintzen, baina ez nuen aukera izan profesioaletara salto egiteko", esan du Santxok.

# "Ilusio berezia egingo lidake munduko txapelketara joateak"

## XABI SANTXO PILOTARIA

Xabi Santxori nahiz eta pilotako enpresekin entrenatu, ez zitzaion aukera iritsi profesioaletara salto egiteko. Gorabeherak izan dituen arren, pilotan jolasten jarraitzen du, eta orain, helburu berria du: urrian, Argentinan jolastuko den munduko txapelketan lehiatzea Euskal Selektioarekin.

**ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO**  
Denbora librean pilotan ibiltzen zara, baina gaztetan profesioaletara salto egitekotan ibili zinen. Nola gogoratzen duzu garai hori? Enpresekin entrenatzen ibiltzen nintzen, beti hor mugan txapelketa onenetan goian ibiltzen nintzen, baina ez nuen aukera hori eduki saltoa emateko. Adinean aurrera egin ahala, 22-23 urterekin, enpresen politika desberdina zen, 18-19 urteko pilotariak nahi baitzituzten debuta egiteko. Beste enpresa txikiago batek kasu egin zidan, eta han bost edo sei urtez egon nintzen.

Munduko txapelketa jolastu eta gero nazkatu egin nintzen. Pilotak asko eman dit, baina

zenbait ekintza egiteko aukera galdu nituen. Ez nuen enpresa horretan jarraitu nahi, eta txapelketak antolatzen zituen pertsona batekin hasi nintzen. Talde polita genuen, eta klubean haiekin jolasten hasi nintzen, eta gaur egunera arte.

29-30 urterekin aita izan nintzen, bikiak izan ziren, eta hor, egia da pilota utzi behar nuela

**"BIZPAHIRU KILO GALDU DITUT ETA HIRUZPALAU ALDIZ ENTRENATZEN DUT ASTEAN"**

uste nuen. Bost-sei hilabete geldirik egon nintzen, eta fabore gisa, ordezko jarri nintzen txapelketa baterako. Titularra izan behar zuenak lehenengo jardunaldiaren aurretik min hartu zuen, eta ez zegoen denborarik beste inor deitzeko. Mesede moduan hasi nintzen, eta berriz ere pilotaren munduan sartzen hasi nintzen, gaur arte. Egia da orain gutxiago

**"PILOTAK ASKO EMAN DIT, BAINA ZENBAIT EKINTZA EGITEKO AUKERA GALDU NITUEN"**

entrenatzen dudala. Asko entrenatzea ez da nire ezaugarria izan, baina askotan astean bi edo hiru partida genituen, eta nahikoa izaten zen. Orain, hamar egunean behin jolastuta jarraitzeko aukera eman dit.

Aurten, Euskal Selektioa Munduko Txapelketan ofiziala izango da, eta selektioaren lehenengo saio horietan nago entrenatzen. Bi joango dira, eta hor ere aukerekin nago. Txapelketa bat eta entrenamendu batzuk antolatu dituzte, eta oraintxe bertan, horretarako prestatzen ari naiz.

## Afizionatu mailan jolasten duzula esan daiteke?

Bai, afizionatu mailan jolasten dut. Egia da kirol desberdina dela pilota. Afizionatuetak goi mailako txapelketak 23-24 urterekin bukatu egiten zaizkizu. Hoberenak Espainiako txapelketara joaten gara.

Gustura nabil afizionatu mailan, eta dudan helburuarekin ilusio berezia egingo lidake familia ere Argentinako Munduko Txapelketara joateak. Euskal Selektioaren lehenengoa denez, nire azken ere izango litzateke ez bainaz 38 urterekin munduko txapelketa bat jolasten ikusten. Nik uste aukera polita dudala aurrean.

## Aukerak ikusten dituzu Argentinan urrian jolastuko den munduko txapelketara joateko?

Entrenatzailearekin hizketan egon naiz. Sei pilotari gaude eta lau gara aukera gehienekin ikusten ditudanak, eta lau horien parte ikusten naiz, eta bi horien parte izan naiteke. Aurretik, beste munduko txapelketaren bat jokatu izanak erabakia baldintzatu dezakeela uste dut. Beteranoa izatea eta horrelako partidak jokatzen jakitea baldintzatu dezake. Partida horietako tentsioa desberdina izaten da.

laz, Usurbilgo txapelketako garaile izan zinen, aurten zein helburu jarri diozu zure buruari?

Printzipioz, ez dut helbururik jarri, baina lehiatzea izan daiteke. Hori eginez gero, goian egoteko aukera daukagu, eta ea Santixabel egunean jolasteko aukera daukagun. Orain txapelketa batzuetan izen ematen ari naiz, beste helburu hori bete ahal izateko existentziako partidak ere jolastu nahi ditudalako.

### Nola zabilta fisikoki helburu hori betetzeko?

Fisikoki gainbehera bat dago. Azkenean, fisikoki beste preskakuntza bat da, denbora aldetik gutxiago entrenatzeko aukera ematen du, gutxi hori ere agian nekatuta eta daukazu denbora gutxi horretan ere zure hurrekin egoteko gogoia daukazu. Orduan, alde batera uzten duzu pixka bat.

Euskal Selektzioaren dei orain dela hilabeteko gauza izan da. Orduan, horrek ere motibatu egin nau, bizpahiru kilo ere galdu ditut eta astean hiruzpalau aldiz entrenatzen hasi naiz. Orain eskolan, 12:30-14:30ko tarte hori gimnasia joateko aprobeztatzen dut, gutxienez ordubetez.

Nik uste partidetan ere nabaritu izan dudala aita izan naizenetik, jokoz jaitsi baino partidaren lehenengo zatian ondo eusten diodala baina azkeneko hamar tantoak luze egiten zaizkidala. Partida asko galdu izan ditut besteak hobe iristen zirelako bukaerara; hau da, partida gogortzen baldin bazen, nire errendimendua jaitsi egiten zen.

Fisikoki nekatuagoa zaude-nean, erabaki txarragoak hartzen dituzu, azkarrago bukatu nahi duzu tantoa eta arrisku horrekin eta nekatuta akats gehiago egiten dira.

### Zer lortu dezake Usurbilek Gipuzkoako Herriarteko txapelketan?

Gipuzkoako Herriartekoa konplexua da. Hiru mailetan jolasten da kadete, jubenil eta senior mailan, eta askotan aurkari daukazu herriaren



"Gipuzkoako Herriartekoan aurkariak eragina izango du", Santxok azaldu duenez.

mailak eragina izaten du. Nik ikusten dut hemen, jubeniletan maila oneko pilotariak daudela, eta guk kanpoan nahiz etxean irabaziko dutelaren puntuekin kontaktatzen dugu. Goi mailako jubenilak dituen herri baten aurka lehiatzen baldin bagara, nahiko zailtasun izango genituzke.

Esan didatenez, kadeteak bi anai dira eta ondo jolasten dutela, baina ikusi beharko litzateke. Lehenengo aldia dute parte hartzen dutela, eta horrelako partidetara ez daude ohituta. Frontoia segituan betetzen da, urdurasunak ere kudeatu beharko dituzte.

Nik pilota 16 urterekin utzi zuen futbolari batekin jolasten dut. Niri iruditzen zait Iñigok (Ibargoi) kristoren meritua duela ez delako erraza herri guztiaren aurrera jolastera ateratzea, eta iruditzen zait asko egiten duela. Ni ez nintzateke haren mai-

lan ibiliko hamabost urteetan pilota utzi izan banu.

Aurreko kanporaketa ikusita Eibar sailkatuko da eta iaz ere Eibarren kontra izan genuen. Lehenengo kanporaketa pasa genuen. Hiruna bukatu genuela uste dut. Eibarren guk nagusietan galdu egin genuen, eta Usurbilgo frontoia berezia dela esan behar da, ez dela betikoa. Etxekoak garenok gehiago jokatzen dugu frontoi honetan, eta besteak gutxiago beldurtu eta harmailak ere gertu daudelako. Orduan, hori guretzako aukera da.

Kanporaketa hori gaintzen baldin badugu ez dakit zein den hurrengo aurkaria. Ea hemen giro ona sortzen den, pilota ere sustatzen dugun eta herriak gozatzeko aukera duen, behintzat lehenengo kanporaketa hori gaintzen baldin badugu.

### Herriartekoan aurkariak eragina duela esan duzu, Usurbilgo txapelketan?

### "ETXEKOOK BESTEAK BAINO GEHIAGO JOLASTEN DUGU FRONTOI HONETAN"

### pelketan ere aurkariak eragina du?

Bai, beti. Frontoia zertxobait motzagoa izateaz gain, es-tuagoa ez dakit, baina baxuagoa da. Harmailak ondoan izateak, defentsarako garaian beldurrak sortzen ditu, burdinak daudelako. Guk azkarrago sartzen dugu eskua eta besteak gehiago kikiltzen dira.

### Usurbil Herriartekoan lehiatzen hasi da

Final hamaseirenak jokatu ostean, Gipuzkoako Herriarteko Pilota Txapelketako final zortzirenen txanda datozen bi asteburuotan. Usurbil Eibarrekin lehiatu zen joan den astean Eibarren, eta maiatzaren 22an Usurbilek hartuko du Gipuzkoako Pilotako Herriartekoaren testigua. Joaneko jardunaldiko emaitza Eibar 2 Usurbil 1 izan zen. Beraz, dena erabakitze dago ostiralean 19:00etan jokatuko den itzulerako jardunaldian.

Pagazpe elkarteko pilotariok ordezkaturiko dute Usurbil: kadeteetan Ekain Alejok eta Markel Alejok; gazteetan, Aimar Alejok eta Enaitz Errastik; nagusietan, Xabi Santxok eta Iñigo Ibargoi enek.



"Datorren urtean berriz ikusiko dugu elkar! Gora Aitzaga eta Gora Usurbil!"

# Giro ederrean amaitu da Aitzagakoen pala txapelketa

Maiatzaren 9an jokatu ziren Aitzaga elkarteak antolatutako 3. Pala Txapelketako azken neurketak. Giro ederra eta lehia estua bizi izan zen.

## ARITZ LASARTE

"Larunbatean ilunabar ederra pasa genuen herriko frontoian, III. Aitzagako Pala Txapelketako finalarekin", azaldu dute antolatzaileek. Bi neurketa jokatu zituzten; hirugarren postua erabaki zuena, eta final handia segidan.

"Arratsaldeko 20:30ak aldeira hirugarren postua eskuratzeko norgehiagoka izan genuen, Pablo-Xabat (gorriz) eta Harri-Danel (urdinez) bikoteen artean. Partida bikaina eskaini zuten, eta azkenean, gorriak gailendu ziren 22-19. Honen

ostean, final handiari hasiera eman zitzaion: Axular-Errasti (gorriz) Antton-Fioreren (urdinez) aurka", txapelketako deitzaileen hitzetan.

Lehia estua bizi izan zen final handi horretan, lekukoek azaldu bezalaxe. "Hasieratik oso berdinduta egon zen lehia, intentsitate altuko partida egin zuten eta lau palistek euren onena eman zuten amaierara arte. Partida gorrien alde dekantatuko zela zirudienean ordea, urdinek gogor eutsi eta markagailua 21-21 jartzea lortu zuten. Azken tantoa oso

gogorra izan zen, eta azkenean, urdinek jantzi zuten txapela".

Aitzaga elkarteak antolatutako pala txapelketa horren hirugarren edizioako antolatzaileek eskerrak helarazi nahi dizkiete "parte hartu duten guztiei, partidak ikustera bertaratu zaretenei, eta nola ez, modu batera edo bestera laguntzen ibili zaiten herritarrei".

Laugarren ediziorako deia egina dute jada. "Datorren urtean berriz ikusiko dugu elkar! Gora Aitzaga eta Gora Usurbil!"

## Zirimaran izena emateko epea, ixtear

2026-27 ikasturterako izen-emate epealdia zabalik izango da maiatzaren 24ra arte. Egitasmoa ezagutzeko ate irekien hainbat saio antolatu dituzte. "Jolas

hezi programa, psikomotritzitatea, natur jarduerak, aurre-kirolak, kirola, saio bereziak, familia planak..." eta gehiago eskaintzen ditu Zirimarak HH

nahiz LH zikloetan diren haur eta gaztetxoentzat.

Zirimararen hurrengo ikasturtea urriaren 1ean hasi eta 2027ko maiatzaren 30era arte luzatuko da. Orain arte bezala, herri erdigunean, Aginagan eta Zubietan eskainiko da.

## Eskubaloi partidak

### Usurbilen

#### Maiatzak 23, larunbata

- 09:15 Kadeteneskak A: Cortes Usurbil K.E.-Ereintza Aguiplast
- 10:45 Jubenil mutilak: Usurbil K.E.-Ereintza Aguiplast
- 17:45 Jubenil neskak: Usurbil K.E.-Endañeta Pulpo EK.
- 19:15-20:35 Kadete mutilen triangularra (30 minutuko partidak):  
19:15 Usurbil K.E.-Bera Bera Donibane.  
19:55 Usurbil K.E.-Gran Camping Zarautz ZKE.  
20:35 Gran Camping Zarautz ZKE-Bera Bera Donibane.

### Usurbildik kanpo

#### Maiatzak 22, ostirala

- 18:15 Jubenil mutilak: Pulpo EK-Usurbil K.E.

#### Maiatzak 23, larunbata

- 16:00 Senior neskak: Astigarragako Mundarro KE-Urribil-Usurbil K.E.

#### Alebilen txapelketa Amurrión:

- 10:40/10:55 Usurbil A - Sanlo A.
- 12:15/12:30 Usurbil A - Urdaneta B.
- 13:15/13:30 Usurbil A - Sanlo B.
- 10:00/10:15 Usurbil B - Audio.
- 12:15/12:30 - Usurbil B - Etxebarriko BZGA.
- 13:15/13:30 Usurbil B - Zuazo.



Txirrindulariak Atxegalde paretik igaro ziren unea.

## Itzulia Women lasterketako txirrindulariak ziztu bizian igaro ziren

Beste urte batez, Itzulia Women emakumezko txirrindularien lasterketako 113,1 kilometroko hirugarren eta azken etapak, Donostian hasi eta amaitutakoak, udalerrri hau zeharkatu

zuen maiatzaren 17an. Hiri-burutik sartu ziren N634 errepidean barrena, Txikierditik Aginagaraino. Tarte horretan, eten egin zuten ibilgailuen joan-etorria.



Miriam Arrillaga Beloki, maiatzaren 17ko hitzorduko parte hartzaileetako bat.

## Emakume Master Cup-ek antolaturiko txapelketa jokatu da

8. San Fermin Torneoko jardunaldietako bat jokatu zen igandean, emakumezkoen esku-pilota "ikustarazteko eta sustatzeko". Lehiakideen artean zen Miriam Arrillaga

Beloki. Alize Sagarduirekin, Madalen Etxegarai eta Enara Gaminderekin lehiatu zen. Promesa mailako neurketa jokatu zuten Arruti-Iparragirre eta Zabala-Lizarralde bikoteek.



Gipuzkoako Herriartekoan lehiatzen ari den Usurbilgo ordezkaritza. PAGAZPE

## Itzulerako partidetan, "zaleen beharra izango dugu"

Abian dira Usurbilgo Pilota Txapelketa eta Gipuzkoako Herriartekoa. Azken horretan, joaneko partidak jokatu zituen herri honek hilaren 17an Eibarko Astelenan. Itzulerakoak

hilaren 22an jokatuko dira, 19:00etan frontoian. Eibarren hiru partidetatik bat irabazi ostean, emaitzak iraultzeko zaletuei neurketok ikustera joateko deia egin diete.



Usurbil K.E.-ren 2025-26 denboraldiko talde argazkia.

## Kadete eta jubenil mutilak, Euskal Ligara hurrengo denboraldian

Harrobiko taldeen lanaren erakusletzat jo du Usurbil K.E.-k garaipen bikoitz hau. Bi taldeok Euskal Ligan lehiatuko dira hurrengo denboraldian. Jubenilen kasuan, Gasteizko

asteburuko faseko lehen neurketan ziurtatu zuen garaipen hori. "Urte osoan erakutsitako sendotasuna eta erregularitasuna giltzarri izan dira", Usurbil K.E.-ren esanetan.

**Zuen iragarkia hemen**

publizitatea@noaua.eus  
747-486-835

**ARTZABAL**  
BASERRIA · JATETXEA  
www.artzabaljatetxea.com

·EGUNEKO MENUA  
·KARTA  
·RAZIOAK  
·HANBURGESAK  
·BOKATAK

943 36 91 39

**Inaki Iturgintza**

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA · ZORU BERO-EMAILEA  
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK  
info@inakiturgintza.com · www.inakiturgintza.com  
600 024 825

# Emakumeen talentua ikusarazteko ekitaldia

Beterri Buruntza Mankomunitateak "Konektatuz" izeneko ekitaldiaren laugarren edizioa antolatu du.

Ostegun honetan izango da, maiatzaren 21ean, 13:00etan Astigarragako Erribera Kulturgunean, Laboral Kutxaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin eta Gipuzkoako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendarien Elkartearekin (ASPEGI) lankidetzan.

"Oraingo honetan, jardunaldiak Beterri-Buruntzan jarriko du arreta, eta bertako emakume erreferenteak bilduko ditu mahai-inguru batean, moderatzailea Nerea Basurto Arraztio izango delarik", antolatzaileen esanetan.

Mahainguruan kideok parte hartuko dute: Alaitz Toloza Irazustak (Talleres Mitxelena S. Coop.-eko Proiektu Estrategikoen arduradunak), María Herrero Eizmendik (Herrekor S.L.U.-ko gerenteak), Norexix Carilin Orellanas Araujok (Chimeneas Erre Berri S.L.L.-ko bazkideak), Silbia Roson Goikoetxeak (Laboral Kutxaren Hernaniko bulegoaren zuzendariak) eta Sonia Valor Cuadrak (Baihome Higiezinaren zerbitzuen sortzaileak).

"Ekitaldia hausnarketarako, inspiraziorako eta konexiorako gunea da, lurralde ez-



"Bertako emakume erreferentzialak batuko ditugu mahai-inguru batean".

berdinetara hurbiltzea eta Gipuzkoako esparru ekonomiko, profesional eta sozialean emakumeen talentua, lidergoa eta ekarpena balioestea helburu duena. Oraingo honetan, jardunaldiak Beterri-Buruntzan jarriko du arreta, eta bertako emakume erreferenteak bilduko ditu mahai-inguru batean, moderatzailea Nerea Basurto Arraztio izango delarik". Hitzordu honen bidez, "Mankomunitateak eta

ASPEGI topaketa-guneak bultzatu nahi dituzte, emakume erreferenteak ikusarazteko, esperientziak partekatzeko eta lurraldeko emakume profesional eta enpresarien arteko laguntza- eta lankidetzak sortzeko".

## Izena eman behar da aldezturik

Ekitaldira esteka honetan doan izena emanda joan ahalko da: <https://labur.eus/f29a8b7i>

## Ordubeteko lanuztea egingo dute Udarregiko langileek

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari 2023ko lan-hitzarmenean jasotako konpromisoak betearaztea eskatzeko itxialdia egin zuten azaroaren 26tik 27ra Udarregi ikastolako langileek, gainerako ikastoletakoen antzera. Lan-gatazka ez da bideratu hilabeteotan.



Azaroan itxialdia egin zuten. Lan-gatazka ez da bideratu oraindik.

### "Sinatutakoa bete arte mobilizatzen segiko dugu"

"Hezkuntza Saila sinatuta dagoen Akordio Laborala betetzeari iskin egiten ari zaio. Egoera honen aurrean, LAB sindikatuak eta langileok argi dugu: sinatutakoa bete arte mobilizatzen jarraitzeko konpromiso osoa dugu. Dagozkiguna defendatuko dugu!", iragarri dute. Testuinguru

horretan, ostegunean, maiatzaren 21ean, "herritarrei gure aldarrikapenen berri emateko asmoz" ordubeteko lanuztea egingo dute arratsalde partean, 15:30-16:30 artean. Kotxe karabana egitekoak dira herrian barrena, "gure aldarrikapenak ozen entzun daitezzen".

## Haur eskolan matrikulatzeko epealdia luzatu dute

Irailtik aurrera, partzuergoaren bidez eskainiko den haur eskola zerbitzuan matrikulatzeko epealdia abuztu amaierara arte luzatuko dutela jakinarazi du Udalak. Izan ere, "0-1 eta 1-2 gelak eskainiko dira Partzuergoaren bidez. Izena emateko epean, ia osorik bete da 1-2 gela; 0-1 gelaren kasuan, berriz, gehiago dira hutsik gelditutako plazak". Ondorioz, "abuztuaren amaierara arte jaio daitezkeen haurrei izena emateko aukera emango zaie". Udarregi ikastolan bideratu beharko da izen-ematea.

Deialdia, 2025ean eta 2026an jaiotako haurren gurasoei edo legezko tutoreei zuzendua dago. Informazio gehiagorako:

- 943 36 12 16
- [haurreskola@udarregi.eus](mailto:haurreskola@udarregi.eus).

## Langabetu kopurua bere horretan mantentzen da

202 langabetu zenbatu zituen Estatuko Enplegu Zerbitzuak apirilean Usurbilen, martxoan baino bat gutxiago.

Azaroan erregistratu zen azkenekoz, eta 196 orduko zen orduko hartan. Urte amaieraz geroztik, berrehunetik gorako langabetu kopurua du udalerrri honek. Langabetu kopurua gehiago murriztu da Beterri-Buruntzan eta Gipuzkoan. Usurbilgo datuetara itzuliz, gizonetzkoak baino (92) emakumezko langabetu gehiago (110) izaten segitzen du. Apirilean, gizonetzkoak (102-107) baino emakumezko (108-113) gehiago kontratatu ziren udalerrri honetan. Bestetik, Usurbilen 215 kontratu erregistratu ziren apirilean, gehienak (163) aldi baterako.

## MERKATU TXIKIA

## ETXEBIZITZAK

## ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

## EROSI

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

## IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## GARAJEAK

## SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

## LANPOSTUAK

## LAN ESKAERAK

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko eskaintzen dut nire burua. Harremanetarako: 747 446 091.

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

## BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.

## TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroledegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

## Pilota partida ugari egunotan

## Aginagako frontoian

Maiatzak 21 osteguna, 19:00

Jubenilak 2. Mailan, 4 1/2:

- Pagazpe (Alejo)

- Aloña Mendi (Rodriguez)

## Usurbilgo frontoian

Maiatzak 22 ostirala, 17:30

Infantilak 3. Mailan

Pagazpe - Soraluze

Alebinak 3. Mailan

Pagazpe - Aloña mendi 2

Infantilak 2. Mailan

Pagazpe - Intxurre 1

Herriarteko Txapelketa

19:00etan itzulerako partidua: Usurbil- Eibar. Partiden ordena: 1 Kadeteak, 2 Jubenilak, 3 Nagusiak.

## Aginagako frontoian

Maiatzak 23 larunbata, 16:00

Alebin nesken topaketa Aginagako frontoian.

## ZORION AGURRAK



## Zorionak Sylah!

Maiatzaren 24an 7 urte beteko ditu Sylah Arcarazo Silvak.

Zorionak etxekoan partez!

## HILDAKOAK



Angel Rodriguez Macazaga

Maiatzaren 14an hil zen, 66 urterekin.

## Udaberri Festa Zubietan

## Maiatzak 28, osteguna

• 16:45 Antzerkia eta herri krosa.

## Maiatzak 29, ostirala

• 16:45 Musika tresnen eskulanak eta "Oaintxe in deu" txaranga.

## Ekainak 11, osteguna

• 16:45 Altxorraren bila ginkana eta apar festa.

## Ekainak 12, ostirala

• 16:45 Ekitaldiak: Haurren funky eta antzerki emanaldia. Ondoren, haur nahiz helduen pintxo eta tortilla lehiaketa. -Afalostean, Zubietako Talentu bila eta bingoa. Antolatzailea: Zubietako Eskola Txikiko Guraso Elkartea.

## Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak orrialde honetan:

## Posta elektronikoa

Mezua bidali [erredakzioa@noaua.eus](mailto:erredakzioa@noaua.eus) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

## Bulegoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

## AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

## OSTIRALA 22

**USURBIL "Etika eta giza eskubideak pertsonen zaintzan" hitzaldi zikloak**

"Giza eskubideak", Laura Fernandez, Matia Institutuaren eskutik.

10:30-13:00 Egurtzejin.

**USURBIL "Euskararen eta artearen Usurbil: Rikardo Arregiren oihartzuna, 60 urte geroago"**

"Zutik" film emanaldia Sutegin. Ondoren mahaingurua.

Amaitzeko, Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondoren saioa.

18:00etatik aurrera Sutegin.

**USURBIL Jesus Muránen erakusketa**

Bisita orduak: 18:00-20:00.

Sutegiko erakusketa-gelan.

## LARUNBATA 23

**USURBIL Jesus Muránen erakusketa**

Bisita orduak: 12:00-14:00 / 18:00-20:00.

Sutegiko erakusketa-gelan.

## IGANDEA 24

**USURBIL 43. Sagardo Eguna**

11:00 Botatzaileen argazkia.

11:30 Irekiera ekitaldia. 17:30-

20:00 "Joseito Ta Alayak"

Elektrotxarngaren kalejira.



Frontoian eta Dema plazan egingo dira ospakizunak.

**Etika eta giza eskubideak pertsonen zaintzan**

Gai horiei lotutako bi hitzaldi antolatu ditu Matia Fundazioak Kalezarko Egurtzejin. "Giza eskubideen errespetua eta sustapena bermatzeko, erabakiak, laguntzak, jardun profesionalak eta pertsonen bizitza, konpromiso etikoek eta jarrera enpatikoek gidatu behar dituzte, tratu duina eta pertsonalizatua eman ahalizateko eta pertsonen bizi-kalitatea hobetzeko". Aipatu moduan, gai horietan oinarrituriko hitzaldiokin, "aurrez aipatutako gai ez jabetzea

eta giza eskubide horiek urratzen diren egoerak identifikatzea da helburua. Lehenbizi, giza eskubideen gaia jorratzen da, gero etikarena. Komunitateari zuzenduriko saioak dira".

• Maiatzak 22: 10:30-13:00 Giza eskubideak. Hizlaria: Laura Fernandez, Matia Institutua.

• Maiatzak 29: 10:00-13:00 Etika. Hizlaria: Miren Iturburu, Matia Institutua.

• Izen-ematea: <https://labur.eus/yagiypih>

• Informaziorako: 688 695 082.

**Jesus Muranen erakusketa Sutegin**

Maiatzaren 21etik 23ra bisitatu ahalko da bere erakusketa Sutegiko aretoan; hilaren 21ean eta 22an, 18:00-20:00 artean eta larunbatean, 12:00-14:00 artean eta 18:00-20:00 artean. "Bertan, kultura eta testuingurutik abiatutako objektuei ematen zaizkien esanahiak nola eratzen diren hausnartzen da".

**Bisita gidatuak****Maiatzak 22, ostirala**

• 18:00 "Zutik" film emanaldia Sutegin. Segidan, Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia.

Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren emango zaio. Parte-hartzaileak: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo. Sarrerak: gonbidapenak doan, usurbilkultura.eus plataforman.

**Maiatzak 27, asteazkena**

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

**Maiatzak 29, ostirala**

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

**Informazioa, erreserbak:**

650usurbilbizi.eus

**Udaberria liburutegian****Maiatzak 30, larunbata**

• 11:30 Ana Merinok bideraturiko idazketa tailerra (gaztelaniaz).

• Iraupena: ordu eta erdi.

**EGIN ZAITEZ BAZKIDE!**

[www.noaua.eus](http://www.noaua.eus)

**ANDATZA TABERNA**

EGUNEKO MENUA  
ASTEBURUKO MENUA  
KARTA  
RAZIOAK  
OGITARTEKOAK

8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena  
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea  
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata



Kalezar Auzoa 12, 08, USURBIL. Tel 943 73 20 27

**Antxeta**

TABERNA

egunero irekitzen dugu!

eguneko menua · asteburuko menua  
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..  
paellak enkarguz!

943 54 43 12 Zubiarenean 6, Usurbil.

# Agu

**PILATES & ARIKETA FISIKOA**  
MUGIMENDUA · INDARRA · OREKA

 Zubiaurrenea kalea 3, atz.2  
20170 Usurbil, Gipuzkoa

 **619 609 412**

 [agurtzanealkorta@gmail.com](mailto:agurtzanealkorta@gmail.com)

## ate irekiak

**Maiatzak 28, osteguna**

11:00 - 13:00

17:00 - 20:00

**Maiatzak 29, ostirala**

11:00 - 13:00

17:00 - 20:00

## Euskararen eta artearen Usurbil

**Maiatzak 22**  
**18:00 Sutegin**

Film emanaldia: "Zutik"

Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia: Ainara Mendiola (filmaren zuzendaria), Ismael Manterola (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabel (Euskaingintzaren Kontseiluko idazkari nagusia)

Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo

Gonbidapenak: [usurbilkultura.eus](http://usurbilkultura.eus)

**650** Usurbil Turismoa  
**USURBIL**  
*bizi*



*sentitu - bizi - izan*

 **BARE** 

- PADI (odontopediatria)
- ORTODONTZIA
- IMPLANTEAK
- ODONTOLOGIA BIOLOGIKOA
- ODONTOLOGIA ESTETIKOA
- SEDAZIOA



943 29 06 19 - Arrantzale kalea 63, ORIO

# ZIRIMARA 2026/27

Jolas hezi programa, psikomotrizitatea, natur jarduerak, aurre-kirolak, kirola, saio bereziak, famili planak.  
Izen ematea burutzeko ordainketa egin behar da Ikastolan  
**ES60 3008 0259 14 2084813324** kontu korrontean.

## Oharrak:

- Eskola Kirolean parte hartzeko derrigorrezkoa da Oiardo Kiroldegiko bazkide izatea. Horretarako abono mota desberdinak daude: Kirol txartela, abonu familiarra... Informazio gehiagorako galdetu Oiardo kiroldegiko harreran.
- Kiroldegirako abonamendurako hobariak eta eskolaz kanpoko kirol jardueratan aritzeko diru laguntzak ere badaude. Informazioa udal webgunean eta kiroldegian.

## ATE IREKIAK

### ZIRIMARA KAXKOAN

- Maiatzak 12 (16:30 - 18:30) HH5 / LH 1
- Maiatzak 14 (16:30 - 18:30) LH 2 / 3

### ZIRIMARA AGINAGA

- Maiatzak 11 (16:30 - 18:00)

### ZIRIMARA ZUBIETA

- Maiatzak 13 (16:45 - 18:15)

### ZIRIMARA FAMILIAN

- Maiatzak 19 (17:00 - 18:00) (0 - 6 urte)

### ZIRIMARA MULTIKIROLA

- Maiatzak 11 (16:30 - 18:30) LH 4 / 5

## 26/27 IKASTURTEKO ESKAINTZA

**Iraupena:** Urriak 1etik maiatzaren 30era.

### Urteko kuota:

- LH1 - 2 - FAMILIAN: 30€
- LH3 - 4 - MULTIKIROLA: 60€

### Ordutegia:

ERDIGUNEAN LH 1 / 2: Astearteetan 16:30 - 18:30  
ERDIGUNEAN LH 3 / 4: Ostegunetan 16:30 - 18:30  
AGINAGAn LH 1 / 6: Astelehenetan 16:30 - 18:00  
ZUBIETAn LH1 / 6: Asteazkenetan 16:45 - 18:15

### ZIRIMARA FAMILIAN (0 - 6 urte)

- Astearteetan izango da saioa (17:00 - 18:00)

### ZIRIMARA MULTI (LH 5 / 6)

- Astelehenetan izango da saioa (16:30 - 18:30)

**IZEN EMATEA DATA:  
MAIATZAK 14-24**



Usurbilgo Udala



Udarregi  
IKASTOLA